

LANEKO ABSENTZIAK PREBENTZEKO ETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-PLANA


M^a Mar Crespo Millán; M^a Pilar Bezares Pérez; Silvia Amo Martínez; Arrate Arrillaga Oyangueren

Sarrera


Gaur egun, absentismoa da enpresa askotako kudeaketa-arazo nagusia, eragin esanguratsua du enpresetako emaitzen kontuetan eta sistema eragileetan.

MUTUALIAK **LANEKO ABSENTZIAK PREBENTZEKO ETA KUDEATZEKO LAGUNTZA-PLAN** honen bidez enpresa-bazkideekin lantzen ditu ezgaitasunaren kudeaketa ez ezik, absentzia horien jatorria ere, enpresetan eragina duten beste askoren jatorria kudeatzeaz gain.

1. ir.: Urteko baja-egunak, langileko. 2018ko datuak. (Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa).



2. ir.: Urteko baja-egunak, 100 langileko. 2018ko datuak. (Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa).



Helburuak

Absentziak prebenitu eta kudeatzeko doako tresna bat ematea, **OHIKO IKUSPEGIAZ HARAGOKOA** eta **LAN-INGURU OSASUNGARRIAN** pertsonen harremana zaindu eta hobetzeko enpresa-kultura berriaren barruan sartua, absentzia jakin batzuekiko kezka puntualaren ohiko kontzeptua aldatu eta pertsonak zaindu eta sentibilizatu, presentzia balioa jarriaz.

Enpresei lagun egin tailerren bidez, absentismoaren kudeaketa eta prebentzioa ikasten.

Metodologia

Plana garatzeko fase hauek egon dira:


1. Bere enpresen artean absentismoaren prebentzioari eta kudeaketari buruzko **ESPERIENTZIAK BILDU** (porrotak/ arrakastak) (FOCUS GROUP JARRAITUA jardura eta neurri desberdinetako enpresek).
2. **INFORMAZIOA AZTERTU** eta **ADITUEN** ezagutzak eskaini.
3. **ABSENTZIAK PREBENTZEKO ETA KUDEATZEKO GIDA**¹ egin.
4. Enpresei metodoa **AURKEZTEKO JARDUNALDI**AK.
5. **TAILERRAK ALDIRO** enpresek, plana abian jarri eta jarraipena egiteko.

Tailerren garapena


- Taldeko jarduerak enpresa bazkideekin.
- Absentzien kudeaketan prestigioa duten adituek emanda.
- **HELBURUA**: Partaideei beharrezko tresnak eta ezagutzak eman, erakundeko pertsonak beraien absentzien eraginaz sentibilizatu ditzaten, eta berriro laneratzea prestatu.
- **METODOLOGIA DIDAKTIKOA**: kasu praktikoetan eta absentziak kudeatzeko tresnak erabiltzean oinarritua. Kontzeptuak barneratu praktikaren bidez. Azterketa, hausnarketa eta ondorioak ateratzea sustatuko da, azalpen teoriko hutsaz haratago.

Planaren giltzarriak

Paradigma-aldaketa



Planaren edukia



Protokolo nagusiak

1. **BAIMENEN KUDEAKETA**
 - Mediku bisita
 - Heriotza
2. **MEDIKU BAJEN PROTOKOLOA**
 - Laneo istripua edo gaixotasuna
 - Gaixotasun arrunta
3. **ITZULERA PROTOKOLOA**

Baimena kudeatzeko faseak



Ondorioak

Absentismoa kausa bezala tratatu izan da orain arte, eta etortzen ez ziren pertsonengana bideratu izan da ahalegina. Hobetzeko giltzarria **PARADIGMA-ALDAKETA** da: absentismoa barneko beste arazo batzuen ondorio bezala tratatu behar da, enpresako politikan eta kulturaren aldaketak sartzen saiatu behar gara, absentziari buruzko jakinarazpenak etengabe egin behar dira, absentzien kudeaketan inbertitu behar da, eta onartu behar dugu, aldaketa abiarazten badugu, denbora luzean mantendu beharko dugula.

Bibliografia

1. Mutualiaren prebentzio-aholkularitza. Absentziak prebenitzeko eta kudeatzeko gida. 2019.

